



LEGAZPIKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzorua izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Azkoitiako lurzorua eta ondasun higiezin hiritarren lurzorua eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

- 1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:
 - **Legazpiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.** (2007ko abenduaren 26an Udalbatzarrak egindako bilkuran behin betiko onartua eta 2008/6/27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- **Hirilur lurraren muga aldatzen da.**



Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Hacienda

Udal zergen Kudeaketa Zerbitzua
Servicio de Gestión de Tributos Locales

- 2.- 102, 103, 121, 123, 143, 144, 202, 203, 211, 302, 331, 341, 412, 601, 802, 803, 804, 805, 811, 812, 813, 821 eta 822 zona katastralen mugak aldatzen dira.
- 3.- 602 eta 801 zona katastralak deusestatzen dira.
- 4.- Honako zona hauek sortzen dira: 146 eta 342 etxebizitzarako zonak eta, 807, 850, 851, 852 eta 853 zona industrialak.
- 5.- Sortutako zonek honako balioak izando dituzte:

Zona Hirigintz. klasif (EK)Eraik Kos. (BEE)Balio Erag. (MP)Apark Moduloa.

146	HIRILUR	480,81	153,06	9.015,18
342	HIRILUR	480,81	153,06	9.015,18

Zona Hirigintz. klasif (BEI)Balio Erag (MP) Apark Moduloa

807	HIRILUR	150,25	6.010,12
850	HIRITARGARRIA	150,25	6.010,12
851	HIRITARGARRIA	150,25	6.010,12
852	HIRITARGARRIA	150,25	6.010,12
853	HIRITARGARRIA	150,25	6.010,12

- 6.- U azpizona katastrala esleitu zaie 320 zona katastraleko kaleei edota kale tarteei eta V azpizona katastrala 606 zona katastralekoei.

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze plano.

II. ERANSKINA

Zona katastralen plano.